



#### Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Azukrea belazeetan**

Egilea / Autor: **Inazio Mujika Iraola**

Saila / Colección: Narratiba

ISBN / EAN: 978-84-9109-495-1

Salneurria / Precio: 16 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orri kopurua / N° páginas: 192

Formatua / Formato: Rustika / Rústica - 15 x 22 cm

Materia: Helduentzako literatura / Literatura adultos

#### Lana / La obra

80ko hamarkadako euskal narraziogintzaren ikur bilakatu zaigu *Azukrea belazeetan*. Literatur lan horrek 80ko hamarkadako narraziogintzaren hiru ezaugarri garrantzitsu biltzen ditu: batetik, euskal literatura eta mendebaldeko literatura elkarrizketan jartzeko gogoia agerikoa da; bigarrenik, elkarrizketa horren eraginez, errealismo magikoaren zantzuak ageri dira narrazioetan; eta, hirugarrenik, *Azukrea belazeetan* bildumako narrazio aleek unibertso literario bakar bati egiten diote erreferentzia, narrazio-sare konplexua osatuz, eta elkarri erreferentzia egiten dioten pertsonaiak zein giroak sortuz.

*Iratxe Retolaza*

Liburua geografikoki Tolosaren mugakide baldin bada ere, literarioki, berriz, Juan Rulforen eta Horacio Quirogaren mugakide da. Landako bizitzaz oratuta baldin badago ere, liburua ikuspegi soilik erruralista batetik irakurtzea murrizt geratzen da, inondik ere. Ipuin gogoangarriak ditu. Ez da, hala ere, distira bakartu eta elkarrenganako autonomoetan oinarritutako liburu bat, aitzitik, oinarri komun batetik ateratako kontakizunak dira.

*Iñaki Aldekoa*

Hamaika ipuin agertuz doazkigu, terralaren saretu-ez saretu horretan, lurraren lurrinak emandako hitzen antzera. Lurra mintzo da Inazioaren luman, eta lur horren mintzoa zeru irekian gal ez dadin terralak estaltzen du, eta oihartzun eginarazten dio, lur horretako zokorik ezkutuenak ere entzun dezan lurraren beraren antsia.

*J.K. Igerabide*



9 788491 094951